OLEŔKI-I

# UMIAK IRAKATSIJA

Gaba datoŕkigu oinkada luziaz
baso erdijan semetxu kuŕuna
bitxabalerano jasteko bidia
zugatzen artian egongo da iluna.

Loratxu poliŕak itxi ene semia,
nik eruango zaŕut lepuan aŕtuta,
iru urte be eztozuz, Jon Ander geuria,
ta ezin ni jaŕaŕu zeure anka bigunaz.

Neure besuetan aŕtzen dot umia,
urirantza bizkoŕ abijatzen nua.
Lasteŕ asiko da mendi bitaŕtiak
eta ibai-aldia, estaltzen lañua.

Aretxak, lixaŕak, gastañak, paguak,
ilunduten dabe geyago estaŕtea,
Odoldi ta bedaŕ oŕlegi ta ezuan
azpiŕik, dantzugu uren zaratea.

Neure semetxubak begi zabal-zabal
ezin ondo ikusi ango iluntasunan.
Baña nasai dago, eztauko bilduŕik
¿zer jazo leŕeke amaren besuan?

Ango aldetik baŕiz, iñoz ezta igaro
ta eztaust iŕanduten norantza guazan,
zelan dago ain ilun, juateko ariñago
gabiltzala belu, etxia nun daguan.

Neure sorbaldean buruba jaŕiŕa,
umetxu maŕia aŕtu egin dau luak.
Gustiz arte dago.. Neure belaŕira
epel datoŕ bere arnasa biguna.

Bitxabalerano eldu gura ta ontxe
joten dauz zortzirak txadon-gabeukatzak

Atzedenduteko jarten naz bidian
¡Ikatzaren antzez basua da baltza!

Umia ipiñten dot altzuan obeto,
espan goŕitxuetan dau baŕe gozua.
¡Eixu lo poliŕa, zu zagoz edeŕto,
iñok eztautzu eingo ezer neure altzuan!

* * *

Gu gara semiak eta Jaungoikua
da geure aŕa ona, baŕa aloroduna.
¿Zeren bilduŕ gara, goiko Jaun altsua
baida geure aŕa, ta geure laguna?

Esku indaŕtsu oŕetan, Jauna, neuk gogua
izten dot betiko. Orain bai benetan,
neuk umia altzuan daukodan moduan.
¡Nora naruazan ezeistazu esan!

Erijotz gerizpez, baltz estalduriko
aran itzalera eruaten ba'nozu,
zeure besuetan onaz bilduŕtuko.
Neure itxaropena Zeu'gan dago osoro.

¡Zu zara geutzako aŕa baño obia!
¡Amarik onena ezta ain biguna!
¡Goguen maŕale, geure Jaun maŕia,
Zu eŕukijoŕa, Zu aloroduna!

Umiaren antzez donokiratzeko,
Zeuk esan zenduban, ixan biaŕ garela
¡Etxat, ez aiztuko, neure ume maŕiak
irakatsi daustan gauŕko irakaskaya!

UTAŔSUS.

Joŕala'n.